

## Resumen de la memoria del curso académico 2020/2021

Lehendakari jauna, Eusko Legebiltzarreko presidente andrea, Gipuzkoako diputatu nagusi jauna, Donostiako alkate jauna, lehendakari ohi jaunak, Hezkuntza sailburu jauna, Euskal Herriko beste unibertsitateetako errektore eta ordezkari jaunak, errektore ohi jaun-andreok, herri agintariok, klaustrokideok, jaun-andreok, egun on guztioi.

Amaitu berri dugun ikasturtearen gertaera nagusiak jasotzea dagokit. Ikasturte oso berezia izan da joan zaigun hau, COVID-19ak eragindako pandemiak erabat baldintzatu baitu Unibertsitatearen jarduna eremu guztietan.

**Irakaskuntzaren** arloan, pandemiak eragin handia izan du baina, beharrezko segurtasun neurriak ezarriz % 75eko presentziantasunari eustea lortu da. Irakaskuntzaren kalitatea eta berarekiko ikasleen gogobetetasuna eutsi ere egin da, tresna digitalei esker, eta batez ere unibertsitate-komunitateak unearen beharretara egokitzeko egindako ahaleginagatik. Unibertsitatean sartzeko ebaluazioa arrakastaz eta gorabeherarik gabe egin da.

Gainera, graduen eskaintza egonkor mantendu da, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ikasteko eskariak gora egin du. Nobedade bezala, Automobilgintzako Ingeniaritzako Graduoko lehen promozioko graduatua da, eta Adimen artifizialeko Gradu berria ezarri da; eta bi titulazio gehiagok Unibasq-ek ematen duen nazioartekotze-zigilua lortu dute.

Bestetik, 66 doktorego-programa, 109 master ofizial eta 58 berezko titulu eskaini dira, bere **nazioartekotze** maila altuagoa izanik. Masterrei dagokienez, 8 Erasmus Mundus, 3 master nazioarteko zigiluarekin eta 14 nazioarteko titulazio bikoitzak.

Covid-19.ak eragindako zailtasunak gaindituz, gure irakaskuntzaren kalitatezko adierazaleek hobetzen jarraitu dute. Irakaskuntza-jarduera Docentiaz programaren bidez ebaluatzeko hamaikagarren deialdian, 398 espediente ebaluatu dira. Ondorioz, unibertsitate publikoko irakasleen % 48,56k gutxienez irakaskuntza-tarte bat ebaluatuta dauka. Aurrekoaz gain, ikastegi berri batek, Letren Fakultateak, erakunde akreditazioa lortu du. Eta gogoarazi behar da gure unibertsitateak ENLIGHT unibertsitateen partzuergo europarrean parte hartzetik eratorritako helburuak betetzeko lana abian jarri dela.

En el ámbito de la **investigación**, la Universidad del País Vasco sigue siendo referente. Dedicamos casi 6,4 millones de euros a formación de personal investigador, siendo una de las universidades estatales que más recursos destina a este fin. La Comisión Europea ha concedido a nuestra universidad más de un millón y medio de euros para incorporar quince investigadores e investigadoras postdoctorales altamente cualificados en el área de la Fabricación Avanzada.

La temática de la investigación se ha orientado cada vez más a la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible, con un aumento 75 % con respecto a 2017; y por supuesto, a afrontar y superar las consecuencias sanitarias, económicas, sociales y humanas de la pandemia que estamos viviendo. Entre otros logros, cabe mencionar la patente de un fármaco contra la covid-19, y la llegada a Marte del rover Perseverance, fruto del trabajo de nuestro personal investigador.

En cuanto a infraestructuras, se ha creado un Joint Research Laboratory on Advanced Pharma Development (JRL-ADP) situado en el Centro de Investigación Lascaray.

Por todo ello, el ranking de Shanghái sitúa a la universidad pública vasca por segundo año consecutivo entre las 400 mejores

universidades del mundo. Es más, estamos entre las 150 mejores en tres disciplinas; y entre las 200 mejores en seis más.

Y seguimos avanzando en hacer llegar **los resultados de nuestra investigación tanto a nuestro entorno socioeconómico como a la sociedad en general**. La financiación obtenida tras la concesión de proyectos de investigación en convocatorias competitivas externas ha sido de 19,6 millones de euros y se han realizado contratos con empresas por más de 11,38 millones de euros. Se han constituido seis nuevas empresas y hemos solicitado 55 nuevas patentes y 31 patentes prioritarias, habiéndose firmado 18 licencias.

Asimismo, se han publicado 87 artículos en la plataforma The Conversation con más de 2.325.000 lecturas y hemos aparecido en 12.312 ocasiones en medios de comunicación no digitales. Se han recuperado las actividades presenciales de divulgación y debate social de EHUgune con la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible como eje central. De hecho, nuestra EHUagenda 2030 ha sido escogida como ejemplo de buena práctica en Euskadi.

Se ha celebrado la 4ª edición de los programas Campus Bizia Lab y Berraktibatu+ Unibertsitateak, con más de 400 participantes de nuestro PDI, PAS y alumnado. Se han activado las plataformas científicas María Goyri y Martina Casiano y se ha organizado la primera Noche Europea de las y los Investigadores y de la GreenWeek.

En lo referente a igualdad de género, la universidad ha obtenido el Premio Menina por su Protocolo contra las Violencias de Género; eta pertsona transek eta ez-bitarrek Euskal Herriko Unibertsitatean izena aldatzeko protokoloa onartu da.

**Euskara** arloan, Ikasleen ekimenez UNIKOAK programa martxan jarri da euskara eta kultura sustatzeko ikasleek bultzatutako proiektua. Eta gure Argitalpen Zerbitzuak Zientzia Juridiko eta Sozialetako monografia onenaren saria jaso du Unibertsitate XXIV. edizioko Sari Nazionaletan, "*Emakume bizkor eta eraginkorrak Bilbon*" liburuaren

argitalpenagatik. Bestetik, kalitate zigiluak berriro dituzte Argitalpen Zerbitzuko lehen zenbakiak eta beste bat onartu dute.

**Ikasleen** prestakuntza eta bere unibertsitateko esperientzia hobetzeko asmoz, hainbat jarduera eta programa garatu dira. EGOkitu programa berraktibatu da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Euskal Herriko Unibertsitatearen udako campusa da, gazteei unibertsitatera modu ludikoan hurbiltzeko aukera emanez. Halaber, pandemia medio, lehen aldiz modu birtualean antolatu dira EHU Azoka eta EHUko Orientazio Azoka, eta horietan parte hartu duen ikaslego potentzialak positiboki baloratu du.

Era berean, ingurune sozioekonomikoarekin harremanak estutzeko eta ikasleak ingurune sozioekonomikora hurbiltzeko, ikastegietako unibertsitate-enpresa gelen sarea bultzatu eta garatu da. Ildo beretik, *i2i idea to impact* proiektu europarra prestatu da, ekintzailetzaren esparruan zentratua, *European Institute of Innovation and Technology* (EIT) erakundeak hautatu eta finantzatu duena.

Aipagarria da, halaber, ikasleentzako laguntza ekonomikoak onartu izana; batez ere pandemiaren ondorioz, ikasketak jarraitzeko arazoak izan zitzaizketen kasurako. Unibertsitate publikoa gara, gizarteratzea bermatu behar duena, eta inor ezin da unibertsitatik kanpo geratu baliabide ekonomiko faltagatik. Era berean, nazioarteko babeseko egoeran dauden 19 pertsona graduko unibertsitate-ikasketetan sartzeko eta jarraitzeko administrazio-izapideak errazten lagundu da.

Todos los logros del curso 2020/2021 se deben por un lado a la implicación **directa de nuestros centros, departamentos y grupos y centros de investigación y a nuestras trabajadoras y trabajadores.**

En lo que se refiere al Personal Docente e Investigador, la universidad cuenta con 4.362 docentes a tiempo completo y parcial, de los que el

77,4 % son doctoras y doctores y el 64 % bilingües o trilingües; y con 1.338 investigadoras e investigadores.

Y en lo a que se refiere al Personal de Administración y Servicios, a 1912 personas. En en el curso que hemos cerrado se ha culminado el proceso de traspaso de las plazas y contratos de PAS de los contratos-programa al presupuesto ordinario y se ha realizado la propuesta de adjudicación de las plazas de las ofertas públicas de empleo de 2016 y 2017.

Por otro lado, las actividades realizadas son también fruto del apoyo y colaboración **de otras administraciones y agentes externos**; colaboración que queremos y debemos reconocer y agradecer. Al gobierno vasco, a las diputaciones forales, a los ayuntamientos y a los agentes sociales y económicos de nuestro entorno.

Besterik gabe, eskerrik asko zuen arretagatik.